



3. ETA 6. MAILAKO AZTERKETEI PLANTO EGITEKO ESTRATEGIA HERRITARRA DUGU

HEZKUNTZA PLATAFORMEN TOPAGUNEAren asanblada orokorra egin dugu gaur, Gasteizen.

Bertan, besteak beste, iragan azaroaren 28an burututako mobilizazio egun nazionalaren balantzea egin dugu. Eguna positiboki baloratu dugu, izan ere, LOMCEren gaia kalera atera eta agenda politiko eta mediatikoan jartzeko baliagarria izan zen. Baita hezkuntza komunitatea, elkarlanean, mobilizazio bateratuak antolatzeke ere.

Honetaz gain, aurten LOMCEren aplikazioa izaten jarraitzen duten Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailako azterketen kontrako plantoa diseinatzen aritu gara. **HPT-tik azterketa hauei planto orokortua egiteko estrategia diseinatu dugu.** Iazko ikasturtean bai Nafarroan zein Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan toki handanatan lortu genuen inposatutako 3. mailako azterketa ez egitea. EAERI dagokionean, Eusko Jaurlaritzak planifikatuta zituen 30 ikastetxeetatik soilik Kristau Eskolei dagozkien 13tan eta eskola publiko bakar batean pilotajea egitea lortu zuten gainontzeko 14 eskola publikoetan eta 2 ikastoletan azterketari planto eginez. Lorpen ikaragarria izan zen eta aurten ere jarrera berdina mantenduko dugu.

3. eta 6. mailako azterketei planto egingo diegu hainbat arrazoiengatik:

- Ebaluazio horiek ez dute hezkuntza komunitatearen babesik.
- LOMCEren baitako azterketak dira.
- Ikasleen ebaluazio jarraia erabat dinamizatzen dute egun bateko azterketara mugatuz.
- Eraitza hutsak dituzte ondorio eta ikasleen sailkatzea eta banaketa albideratu dezakete.
- Eredu erabat antipedagogikoa dute oinarri.
- Ikasleak zenbaki huts izatera kondenatzen dituzte.
- Ez dugu LOMCE edota Heziberriren inposiziorik onartuko.

Horretarako, hainbat bitarteko jarriko ditugu martxan:

- Hitzaldi informatiboak egingo ditugu ikastetxe eta auzo zein herrietan.
- Iaz bezala, familia "objetoarek" bilakatuko ditugu, ikasleek azterketa hau egin dezaten baimenik emango ez dutenak.
- Eskola Kontseilu eta Artezkaritza Kontseiluetan azterketa hauen kontrako idazkiak onartuko ditugu.

Familia, herritar eta hezkuntza komunitateari mezua:

- Azterketa hauek LOMCEren aplikazioa dira, hau da, madrildik inposatu nahi zaigun lege arrotz baten bermerako azterketak.
- Herri gisa, parte hartu, bultzatu eta babestu dezagun plantoa.
- Herri gisa, egin diezaiozun aurre LOMCEri eta honen aplikazioei Hezkuntza Sistema Propioaren alde urratsak emateko.

Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuari interpelazioa:

- Entzun ezazue iaz eta baita aurten ere familiek, hezkuntza komunitateak eta HPT-k bidalitako mezua.
- Ez itzazue azterketa hauek aplikatu.
- Azterketen inguruko beharrezko informazio guztia gardentasunez zabaldu ezazue.
- Planto egin diezaiozun elkarlanean herri gisa LOMCE lege inposatuari.
- LOMCE aplikatzeko hautuan jarraituz gero, planto tinko eta orokortua bultzatu eta eramango dugu aurrera.

